



**EBAZPENA, JOKO ETA IKUSKIZUNEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ HERRITARREI AURRETIAZKO KONTSULTA EGITEN BATZAI E XEDAPEN OROKOR BAT EGITEKO, OTSAILAREN 5EKO 17/2019 DEKRETUA ALDATUKO DUENA. DEKRETU HORREN BIDEZ ERREGELAMENDU BIDEZ GARATZEN DA JENDAURREKO IKUSKIZUNEN ETA JOLAS JARDUEREN ABENDUAREN 23KO 10/2015 LEGEA.**

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak aurreikusita dauka Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legea erregelamendu bidez garatzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretua bigarrenez aldatzeko dekretu-proiektua egiteko prozedura hastea.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua honako hau xedatzen du:

1. Xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak, testu juridiko arauemaielen proposamenak idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko du gizarteak duen iritzia. Herritarrei zuzendutako alde aurretiko kontsulta-izapide horretan, beharrezko neurriak hartuko dira, ziurtatzeko, batetik, gizon eta emakumeen ordezkariak orekatua, eta, bestetik, arautzekoa den alorrean edo sektorean berdintasuna bultzatzen duten elkarten parte-hartzea. Halaber, hizkuntza-eskubideak errespetatuko zaizkio alde aurretiko kontsultetan parte hartzen duen orori, Administrazioako langile zein herritarra izan.
2. Aldez aurretiko kontsulta kapitulu honetan araututako prestaketa-fasean sartzen da. Izan ere, herritarrekiko interakzio izapidea da, zeina halako moldez egingo baita, non xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiek aukera izango duten iritzia emateko, behar besteko epean, berau hamabost egun baino gutxiagokoa izan gabe, eta testu juridiko jakin bat onartu baino lehen.
3. Aldez aurretiko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentro edo -organoak bete ahal izango du, iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan jarrita. Alderdi hauekin lotutako informazioa iragarriko da: arau onestearen premia eta egokitasuna, arauaren xedeak, ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak; eta herritarrei gonbidapena egingo zaie iragarritako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.
4. Artikulu honetan aurreikusitako herritarren parte-hartzearen eskakizuna betetzat jo dezake testu juridiko arauemai bat alde aurretik onetsi ondorengo araugintza-prozedurako instrukzio-faseko





entzunaldi eta informazio publikoen izapideak. Memorian horrela jasota utzi beharko da, hala bada..

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua 1. apartatua ezarritakoaren arabera, xedapen arauemaile baten proiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bidez, etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsona eta erakunde adierazgarrienen iritzia jasoko da bertan.

Lege horrek ezartzen duenez, kontsultak honako alderdi hauek izan behar ditu hizpide:

- a) Konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onartzeko beharra eta egokitasuna.
- c) Helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Aurrekoa betetzeko, eta xedapen arauemailea egin aurretik, honen bidez berariaz gonbidatzen ditugu herritarrak honako hauei buruzko iritzia ematera:

## **1.- EKIMENAREKIN KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK.**

Otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuak, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legea garatu zuenak, sarrera-kontrolleko langileen gaikuntza arautzen du, lege horren (aurrerantzean, JIJL) 21.4 artikuluko agindua betez: « *Sarrera kontrolatzeko funtzioa bete ahal izateko, beharrezkoa izango da jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren eskumena duen sailaren habilitazioa eskuratzea, erregelamendu bidez zehaztuko den moduan* ».

Era berean, legeak behin baino gehiagotan jotzen du erregelamendu bidezko garapenera sarbidea zaintzeko eta kontrolatzeko betebeharren arloan. Hala, adierazten du zehaztuko dela zer ikuskizun, jarduera eta establezimenduk izan behar duten, beren izaeragatik, edukieragatik edo herritarren bizikidetzan duten eraginagatik, segurtasun pribatuko zerbitzua (segurtasun pribatuari buruzko legerian ezarritako baldintza eta betekizunekin) eta harrera-zerbitzu espezifikoak, behar bezala identifikatutako eta egiaztatutako langileekin, bezeroen edo erabiltzaileen sarbidea kontrolatzeko.

Lege-bereizketa horrek agerian uzten du segurtasun-zerbitzuen eta onarpen-zerbitzuen arteko bereizketa. Erregelamenduak, bereizketa hori jasota, onarpen-zerbitzuko langileak definitzen ditu, eta haien eginkizunak zerrendatzen ditu: pertsonen sarreraren garapen normala erraztea; antolatzaileak ezarritako edo legeko baldintzak betetzen ez dituztenei sartzen ez uztea; baimendutako edukiera gainditzen ez dela kontrolatzea; segurtasun pribatuko zerbitzuei edo polizia sarbidean gertatzen diren alterazioen berri ematea berri ematea; dibertsitate funtzionala duten pertsonen sarbidea erraztea; jarduera

lokaletik kanpo egiten ez dela ziurtatzea; ate bikoitzeko atari akustikoen funtzionamendua zaintzea; ikuskapenak erraztea, eta abar.

Era berean, langile horiek eginkizun horiek nola bete behar dituzten arautzen da, eta ezartzen da modu ez-arbitrarioan eta pertsonen eskubide eta askatasunak errespetatuz jardun behar dutela; debekatu egiten da edari alkoholduak, drogak eta substantzia toxikoak edo psikotropikoak hartzea, bai eta inolako armarik eramatea ere.

Gainera, zehazten da ezin izango dituztela segurtasun pribatuko langileentzat ezarritako eginkizunak bete, eta segurtasun-zaintzaileei edo, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoei jarduera edo ikuskizun batean gerta daitezkeen ordena-nahasmenduen berehala jakinarazteko betebeharrak babesten du ideia hori.

Segurtasun-langileen eta onarpen-langileen arteko arau-bereizketa kontuan hartuta, gaikuntza-eta erregistro-sistema diseinatu zen, bai eta ikasketa-moduluen edukia ere, Joko eta Ikuskizunen zuzendariaren 2022ko abuztuaren 16ko Ebazpenean arautuak, 17/2019 Dekretuaren 63.2 artikuluaen manuaekin bat etorriz: *"Ikuskizunen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzak aldian-aldian gaikuntza-probak antolatuko ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako ebazpen baten bidez; proba horietan, teoria- eta praktika-moduluei buruzko azterketa bat eta test psikotekniko bat egingo dira. Modulu horien gutxieneko edukia dekretu honen V. eranskinean ezarritakoa izango da"*.

Dekretu hori partzialki aldatu zen uztailaren 23ko 119/2019 Dekretuaren bidez (Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen Dekretua aldatzen duena).

Orain dela gutxi, onarpen-zerbitzuetako langileei aplikatu dakiekeen egungo araudia hobetzeko alderdi posibleak agerian jarri dituzten zenbait gertakariren ondorioz, beharrezkotzat jo da indarrean dagoen araudia berrikustea eta, hala badagokio, dagozkion aldaketak sartzea. Helburua da arauaren alderdi batzuk aldatzea izan ere, arauaren aplikazioan izandako esperientziak erakutsi du alderdi batzuk hobetu egin daitezkeela.

## **2.- ARAUA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA.**

Otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuak, 10/2015 Legea garatzeko erregelamendua onartzen duenak, onarpen-zerbitzuko langileak definitu, haien eginkizunak zerrendatu eta behar den gaikuntza lortzeko oinarritzko betekizunak zehazten ditu. Halaber, ezartzen du ikuskizunen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzak onarpen-zerbitzuaren eginkizunak betetzeko gaikuntza espezifikoa lortu duten pertsonen erregistroa egingo duela.

Onarpen-zerbitzuko langileen gaikuntzari dagokionez kontrol zehatzagoa egiteko beharrezkotasuna planteatu da, eta Administrazioak, gaikuntza eta gaikuntza errebokatzekeko prozedurei dagokienez, hobetu beharreko alderdiak hauteman ditu.

Horregatik, indarrean dagoen araua aztertu ondoren, beharrezkotzat eta egokitzat jotzen da Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretua berriro aldatzea.



### 3.- ARAUAREN HELBURUAK.

Egin nahi den dekretu-proiektuaren helburua da indarrean dagoen araudia hobetzea, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legea erregelamendu bidez garatzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuan ezarritako gaikuntzaren eta errebokazioaren erregulazioa aldatuz.

### 4.- IZAN LITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZERREGULATZAILEAK.

Ez da kontuan hartu beste aukera ez-arautzailerik, indarrean dagoen arau baten alderdi jakin batzuk zuzentzeko dekretu-proiektu bat delako.

Horregatik guztiagatik, honako hau

### XEDATZEN DUT

**Lehenengoa.** – Jendurrean jartzea Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretua bigarren aldiz aldatzeko xedapen orokorra egiteko proiektua.

**Bigarrena.** – Arauak eragiten dien herritarrek eta erakundeek, nahi izanez gero, 2025eko irailaren 15era arte epea izango dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, agindu honetan proposatutako alderdiei buruzko iritzia emateko.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean

Nerea Alday Garate  
Joko eta Ikuskizunen zuzendaria